BIZITEGI ERAIKINA — GARIBAI 1

D MAILA



Egilea eta data: Antonio Cortazar; 1865

Deskribapena.
Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituena, gehi 1876ko abuztuko jasodura bat ia fatxada planoan dagoena, beste jasodura bat 1927 eta 1933 artean eraikia, eta beste jasodura partzial bat 1933 eta 1938 artean eraikia. Fatxada entokatua, 1927ko hormigoizko begiratokia duena kantoiko alakan (1893-1901 artean eraikitakoak ordezkatzen dituena). Hormigoizko apaingarri oso landuak. 1881ean Boulevardera ematen duten behe oinetako baoak berritu ziren, erdialdeko biak lotuta (gaur egun aldatuta daude). 1913an kantoiko lokalaren fatxadaren apaindura proiektatu zen. Eraikin honetan jardun txiki eta partzial ugari dago.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: 6. goi oina.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: kantoiko lokalaren kanpoaldea gaitzea (3 baoz osatuta dago, bata kantoian eta beste bi aurrekoaren bi alboetan).
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen dira irizpideak –fatxadaren eta behe oineko baoen, adierazitako kantoiko lokalari dagokion zatia salbu, konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.